

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO POLITIKAK

DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK (bazkide babesleeta mutualistak)
<i>Tratamenduaren arduraduna</i>
AROGESTION AHORRO-JUBILACION, EPSV Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). IFZ V20658365 Telefonoa: 943 79 01 00 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK Helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es
<i>Tratamenduaren helburuak</i>
1. Bazkide oso edo arruntek nahiz bazkide babesleek Arogestioni egindako ekarpenak eta atxikimenduak kudeatzea: - Bazkide oso edo arrunten altak, bajak eta aldaketak kudeatzea. - Kontratututako plan mota kudeatzea (mistoa/dirua). - Bazkide babesleek bazkide oso edo arrunten alde egindako ekarpen arruntak (hilekoak) eta bereziak kudeatzea.
2. Erretiroagatiko prestazioa kudeatzea: - Bazkide oso edo arruntak erretiroa hartzeagatiko edo 60 urtetik aurrera lan jarduera uzteagatiko prestazioa kudeatzea.
3. Baliaezintasunagatiko prestazioa kudeatzea: - Bazkide oso edo arruntaren baliaezintasunagatiko prestazioa kudeatzea; horretarako, epai irmoaren edo behin betiko ebazpenaren bidez ezintasun iraunkor absolutua, baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor oso kualifikatua edo LagunAro, EPSVren ezintasun iraunkor oso kualifikatuari dagokion prestazioa eskuratu ahal izatea egiaztatu beharko da, eta Arogestión Ahorro-Jubilacion, EPSVri dagokion eskaera aurkeztu beharko zaio.
4. Mobilizazioa edo lekualdatzea kudeatzea: - AROGESTIONen metatutako eskubideen mobilizazioa/lekualdaketa kudeatzea, beste BGAE batera mugitu nahi izanez gero.
5. Antzinasunagatiko prestazioa kudeatzea: - 2012/03/07a baino lehen AROGESTIONekin planen bat kontratatuta zeukaten bazkide oso edo arrunten antzinasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.
6. Prestazioaren ordainketa: - Bazkide oso edo arruntei beren erreserbarengatik metatutako eskubideei dagokien prestazioa ordaintzea, gertaera eragilearen unean.
<i>Tratamenduaren legitimazioa</i>

Bazkide oso edo arruntaren datu pertsonalak tratatuko ditugu kontratu baten exekuzioan oinarrituta, non interesduna alderdietako bat izango baita, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikuluaaren arabera. Prestazioaren onuradunen datuak legezko betebeharrak betez tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluaekin eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearekin eta hura garatzen duten gainerako arauekin bat etorritik.
<i>Datuen jatorria</i>
Datuak interesdunarenak berarenak dira, eta, hala badagokio, bazkide babesleenak eta LagunAro EPSVrenak.
<i>Datuak komunikatzea</i>
Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluaaren arabera. Era berean, datu pertsonalak LagunAro Servicios S. Coop.ek eta papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresak tratatuko dituzte, bai eta bazkide oso eta arruntak behar bezala kudeatzeko behar den beste edozeinek ere, Arogestionen kontura eta haren jarraibideak betez.
<i>Nazioarteko transferentziak</i>
Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.
<i>Datuak gordetzea</i>
Datuak gorde egingo dira pertsonak bazkide oso edo arrunt izaten jarraitzen duen bitartean, bai eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan ere.
<i>Eskubideak</i>
Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarrjeta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.
<i>Segurtasun neurriak</i>
Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren arabera segurtasun maila bermatzeko.